

ERREPORTAJE LEHIAKETA 2011

Mungiako Udalak (AUE) erreportaje lehiaketarako deia egiten du. Nork har dezake parte?

Mungiako ikastetxeetako 16-18 urte arteko gazteek (Batxilergoa eta zikloak).

Oinarriak

1. Lanak banaka edo binaka egin daitezke.
 2. Lanak herri aldizkari baterako erreportajeak izango dira: Gaia Mungialdeari buruzkoa izango da. Erreportajeak gutxienez orrialde 2 izango ditu (DINA4). Idazteko, Times New Roman 12 letra-moldea eta lerroen arteko espazio bakarra erabili behar da. Lana argazkiekin osatu beharko da. Ordenadorez idatzita ekarri beharko dira eta, ahal izanez gero, formatoa eta konposizioa eginda.
 3. **Modalidadeak:**
 - a) Erreportaje librea: bakoitzak nahi duen gaia baina Mungialdearekin lotua.
 - b) Grabazino etnografiko batean oinarritutako erreportajea: parte bi izango ditu, batetik, edadeko bati grabatutako alkarrizketa (gure tradizioei buruzkoa (*); 15' inguru), eta bestetik, horri buruzko erreportajea.
 4. **Lanak aurkezteko epea eta modua:**
 - Lanak ikastetxe bakoitzeko idazkaritzan aurkeztuko dira apirilaren 15a baino lehen.
 - Sobre bi erabiliko dira, bata bestearen barruan. Bietan idatzi beharko duzue azalean egile(ar)en ezizena, besterik ez. Txikian sartu egile(ar)en benetako izen-deiturak eta ikastetxearena.
 - Lanak epai-mahaiaren esku geldituko dira.
3. **Sariak:**
- Lanik onenak Udalaren web-orrian argitartatuko dira.
 - 3 sari banatuko dira: 2 erreportaje libreentzat (100€koak) eta 1 grabazino etnografikoetan oinarritutakoentzat (150€koa). Sari-banaketa maiatzaren 27n izango da.

(*) Adibide moduan: aspaldiko ohiturak, ogibideak, antzinako gertaera bereziak, zerbait berezia egindako herriko pertsonaiak, lekuak, jaiak edo tokiko tradizio bereziak, ondare ezaguna, ez hain ezaguna edo ahaztua...